

HAUSNARKETA-OTOITZA: “Zu eta dirua”

1.- SARRERA:

“Ezin da inor nagusi biren morroi izan; izan be, bata gorroto izango dau eta bestea maite, edo batari men egingo deutso eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitekeze Jainkoaren eta diruaren morroi izan” (Mt. 6, 24)

2.- BIDEO: <https://www.youtube.com/watch?v=cZzaY8k861Y>

3.-HAUSNARKETARAKO:

Finantza etikoak:

Finantza-sistemak inoiz ez die erantzun izan aurreztaileen nahiei eta beharrei, sektore hori gero eta ugariagoa den arren; ez die inoiz erantzun izan gizarte justu, solidario eta humanoago baten bizi nahi dutenei. Norberaren irabaziek bakarrik zuzentzen duten finantza-sistema batek desoreka soziala bultzatzen du, bazterketa finkatzen du eta ondorio larriak ditu ahalmen ekonomiko txikiagoko herrialdeetan, talde sozialetan edo pertsonengan.

Diruaren erabilerari buruzko erabakiak finantza-erakunde tradizionalak hartzen dituzte jabeen inolako kontrolik gabe, eta, hortaz, finantza-sistemak beretzat hartzen du aurrezkiaren errentagarritasun ekonomikoa ez ezik, baita enpresa edo proiektu-mota batzuk finantzatu ahal izateak, ala ez, ematen duen boterea ere. Maileguak edo kredituak emateko irizpideak “dirua behar ez duela frogatzen duenari bakarrik ematen dio dirua bankuak” ideari baliagarritasuna ematen dion berme-sistema batean oinarritzen dira batik bat. Ondorioz, kreditu hitzak bere esanahia galtzen du eta sozialki erabilgarriak diren ekimenak banketxeen finantzaketa-zirkuitutik kanpo gelditzen dira, hasierako baliabiderik ez dutelako edo haien helburu bakarra ez delako etekin ekonomikoa ateratzea.

Egoera horri erantzuteko, zenbait kolektibok bat egin dute eta ezaugarri, eraginkortasun eta zehaztasun desberdineko esperientziak sortu dituzte, xede sozialagoetan inbertitzeko eta aurrezteko aukerak emateko helburuarekin, eta beste bide batzuk eskaini nahi dizkiete haien aurrezkiak nola erabiltzen dituzten ikusita iruzur egin dietela sentitzen duten pertsoneri. Ekimen horiek guztiek badituzte oinarritzko printzipio komun batzuk, neurri batean behintzat:

Aurreztaileak eskubidea du bere dirua nola erabiltzen ari den jakiteko, diru horrekin zer proiektu, ideia edo enpresa finantzatzen ari diren jakiteko.

Baliabide ekonomikoak probetxu sozialarekin erabiltzen dira: enplegua sortzeko, gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko, erabilera soziala duten produktuak edo zerbitzuak garatzeko, ekoizpen-prozesu garbiak bultzatzeko, etab.

Formula finantzario alternatiboen helburu bakarra ez da mailegatutako zenbatekoak berreskuratzea; babes-lana egitea ere badute helburu.

Baliabide ekonomikoak proiektu bideragarrietan inbertitzen dira, eta, hortaz, ez dago inoren itxaropenei huts egiten dien edo baliabideen berrerabilera murrizten duen galerarik.

Azken batean, irabazi asmorik ez duen finantza-kudeaketa bat jartzen da martxan, bokazio sozial argia duena.

Ekonomia desberdin batean sinesten dutenei eta beraien aurrezkiak planteamendu etiko eta bital batzuen arabera erabil daitezzen nahi dutenei finantza-erantzunak ematen dizkie jarduera-lerro honek.

GALDERAK:

Aztertu nola erabiltzen duzun dirua. Pentsatu apur bat: Berdin zaizu zure dirua erabiltzeko moduak ondorio kaltegarriak izatea? Diru horrekin injustiziak egitea? Beste pertsona batzuk pobreziara kondenatzea? Edo duinak ez diren baldintzetan bizitzera behartzea? Nola erabiltzen duzun zure dirua, horren ondorioen erantzule izango zara. Berdin zaizu?

4.-BANATZEAREN ZEINUA:

Dirua batuko dogu eta zertan erabili erabagi.

5.-OTOITZA:

Gure izerdia giza arazoakaz
nahastatzen dogunean,
Barri Onaren bizigarria
berbiztu egiten da.

Jaiobarriak amarengan
konfiantza osoa dauan lez,
gure begiek
Jaunari begiratzen deutse.

Berak amore emoten deusku,
zalantzaren kateak apurtzen ditu
eta gure konpromisoen bidea
zabaltzen dau.